

## **2025EKO OTSAILAREN 10EKO TOKIKO GOBERNU BATZARRA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hogeita bosteko otsailaren hamarrean, arratsaldeko bostetan, Lazkaoko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarra bildu da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Kepa Zubiarrain Erauskin Alkatearen lehendakaritzapean. Bertaraturako zinegotziak honako hauek dira: Amagoia Naldaiz Mingo, Aitor Altuna Oiarbide, Joxemai Ormazabal Sukia eta Maialen Amundarain Irizar.

Idazkari lanetan Idoia Garmendia Callejak dihardu.

### **I.- AURREKO AKTA.-**

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaraturakoen onespenera aurkeztu da 2025eko urtarrilaren 27an egindako ohiko bilkurako akta, eta idatzita dagoen moduan onartu da.

### **II.- FAKTURAK.-**

Ondoren, Udaletxera azkenaldi honetan etorri diren fakturak aztertu dira.

Fakturak aztertu ondoren, 2024ko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 105 zenbakidun fakturen zerrenda, LAUROGEITA LAU MILA EHUN ETA HAMAHAZPI euro ETA HIRUROGEITA ZORTZI zentimokoa (84.117,68 €), eta 2025eko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 3 zenbakidun zerrenda, HOGEI MILA ZORTZIEHUN ETA BERROGEITA LAU euro ETA HIRU zentimokoa (20.844,03 €), bere espedientean daudenak, onartzea erabaki da.

### **III.- ZUBIZKITZA AUZOKO 3. FASEA BERRURBANIZATZEKO LANEN 1. OBRA EGIAZTAGIRIA.-**

Zubizkitza auzoko 3. fasea berrurbanizatzeko lanen obra zuzendaritza daramaten Pedro Izaskun arkitektoak, Soroa Arquitectos, S.L.P. enpresakoak, eta Estibalitz Igartua arkitekto teknikoak, lanen lehen obra egiaztagiria egin dute. Lehen obra egiaztagiri honen zenbatekoa HOGEITA HAMALAU MILA BEDERATZIEHUN ETA BERROGEITA BEDERATZI euro ETA BERROGEITA ZAZPI zentimokoa (34.949,47 €) gehi B.E.Z.ari dagokion BOST MILA BOSTEHUN ETA LAUROGEITA HAMAHAZPI euro ETA LAUROGEITA HAMABI zentimokoa (5.591,92 €) da, guztira BERROGEI MILA BOSTEHUN ETA BERROGEITA BAT euro ETA HOGEITA HEMERETZI zentimokoa (40.541,39 €).

Lanak SASOI ERAIKUNTZAK S.L. enpresa ari da burutzen.

Ormazabal zinegotziak (EH Bildu) adierazi du abstenitu egingo direla.

Tokiko Gobernu Batzarrak, gaia aztertu ondoren, aldeko 3 boto (EAJ), aurkako botorik gabe eta 2 abstentziaz (EH Bildu), lehen obra egiaztagiri hau onartu egin du.

#### IV.- GIPUZKOAKO KONTRATAZIO ZENTRALAREN BIDEZKO KONTRATAZIOA, ELEKTRIZITATE HORNIDURA.-

Gipuzkoako Erosketen Foru Zentralak jakinarazi du, elektrizitate hornikuntza kontratatzeke kontratazio espedienteari hasiera ematera doala, esparru akordioaren prozedura bidez.

Kontuan izanda udal honetako Osoko Bilkurak, 2011ko martxoaren 17an egindako bilkuran, Gipuzkoako Foru kontratazioen zentralari atxikitzeke hitzarmena onartu zuela.

Kontuan izanda baita ere udal honek zerbitzu honen kontratazioa behar duela.

Gaia aztertu ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botoekin zera erabaki du:

- 1.- Gipuzkoako Foru Kontratazioen Zentralaren bidez elektrizitate hornikuntza kontratatzeke hasi duen esparru akordioaren kontratazio espedienteari atxikipena ematea, 2011ko martxoaren 17ko Udal Osoko Bilkurak onartuta atxikitako hitzarmenean ezarritako eran eta baldintzetan, eta 2011ko otsailaren 22ko 2011/3 Foru Dekretuan ezarritako arauetan.
- 2.- Gipuzkoako Foru Aldundiari baimena ematea, erakunde honen kontsumo elektrikoaren datuak enpresa hornitzaileari eskatu eta horiek eskuratzeko, kontratazio espedientea arautuko duten baldintza agirietan jaso ahal izateko.
- 3.- Enpresa esleipendunarekin kontratu eratorria izenpetzeko konpromisoa hartzea, aldundiak esparru akordioa formalizatu ondoren eta hark adierazitako epean, betiere.

#### V.- GIZARTE ZERBITZUETAKO LAGUNTZAK.-

Gizarte Zerbitzuetako Batzordeak aurkeztutako proposamenak aztertu ondoren, Gobernu Batzordeak honako erabaki hauek hartu ditu:

##### Orobione jubilatu eta pentsiodun elkarteari.-

Bulegoko altzarien gastuak ordaintzeko 2.010,15 €-ko dirulaguntza ematea.

##### Merkatariei Sormen lehiaketako saridunen bonoengatik.-

Lazkaoko Udalak 2024 urtean antolatutako Sormen lehiaketa dela eta, saridunek herriko dendetan gauzaturiko erosketen fakturak ekarri dituzte Udalera eta ondorioz dagoen merkatarietara lehen ordainketa egitea:

<b>MERKATARIA</b>	<b>ZENBATEKOA</b>
Gerriko liburudenda (1. Saria A kategoria)	22,95 €
Koboloi jostailuak (1. Saria A kategoria)	93,85 €
<b>GUZTIRA</b>	<b>116,80 €</b>

#### VI.- EUSKARA ARLOKO DIRULAGUNTZAK.-

Euskara batzordeak egindako proposamenen aurrean, Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, honako erabaki hauek hartu ditu:

##### Euskara ikasten ari direnei.-

2024/2025 ikasturtean euskara ikasten bukatu duten ikasleei dirulaguntzaren ordainketa egitea baldintzak bete dituztelako. Ikasle bakarra izan da eta emango zaion kopurua 340 €-koa da.

Ordainketa partida honetatik egingo da: 2025eko aurrekontuaren 1 480.01.335.00 partidatik.

#### VII.- KULTURA ARLOKO DIRULAGUNTZAK.-

Kultura Batzordeak egindako proposamenen aurrean, Tokiko Gobernu Batzarrak honako dirulaguntza hauek onartu ditu:

##### Lazkaoko festetako esku programaren portada lehiaketaren deialdia.-

2025eko San Prudentzio jaietako programaren portada aukeratzeko lehiaketaren deialdia aurkeztu da bere onarpenerako.

Hau honela, Tokiko Gobernu Batzarrak, honako erabaki hauek hartu ditu:

San Prudentzio jaietako programaren portada aukeratzeko lehiaketaren deialdia onartzea, irabazlearentzat 200 €-ko sari proposamena onartuz.

Sari hau 480.01.338.00 partidatik ordainduko da.

##### Orobione jubilatatu elkarteari.-

Orobione jubilatatu elkarteari 2024ko San Migel jaietako egitarauaren barruan, irailaren 21ean egindako sagardo dastaketan edalontzien salmenta egiteagatik 370 €-ko dirulaguntza ematea. Jasotakoaren % 50 da hain zuzen ere.

## VIII.- EKONOMIA SUSTAPEN ARLOKO DIRULAGUNTZAK.-

Ekonomia Sustapeneko Batzordetik, merkataritza, zerbitzu eta ostalaritza jardueri dirulaguntzak emateko egindako proposamenen aurrean, Tokiko Gobernu batzarrak, honako erabaki hauek hartu ditu:

### Merkatariei Gabonetako erakusleho lehiaketako sari-bonoengatik.-

Lazkaoko merkataritzaren sustapenerako 2024ko Gabonetan burututako erakusleho lehiaketaren kanpainaren barruan, parte hartu duten hainbat merkatariei beren saltokietan jaso eta ekarri dituzten bonuen arabera bigarren ordainketa egitea:

MERKATARIA	GUZTIRA
JULEN IRURZUN IRAOLA	35 €
<b>GUZTIRA</b>	<b>35 €</b>

### Merkataritza, zerbitzuak eta ostalaritza sustatzeko dirulaguntzak.-

Lazkaoko merkataritza, zerbitzuak eta ostalaritza sustatzeko dirulaguntzak arautzeko oinarriak eta 2025eko deialdia onartzeko proposamena egin du Ekonomia Sustapeneko batzordeak.

Proposamenari erantsitako oinarriek honakoa diote:

#### **“LAZKAOKO MERKATARITZA, ZERBITZUAK ETA OSTALARITZA SUSTATZEKO DIRU LAGUNTZA DEIALDIA 2025. URTERAKO.**

##### *1. artikulua. Xedea.*

Laguntza hauen deialdi honen xedea da 2025 urtean Lazkaon merkataritza, zerbitzu eta ostalaritza jarduera berrien instalazio gastuak hala nola lehendik martxan dauden jardueren egokitzapen eta modernizatzearen gastuak zati batean laguntzea.

##### *2. artikulua. Partida eta aurrekontuko diru-hornidura.*

Deialdi honetan emango diren diru-laguntzen zenbatekoa guztira 9.000 eurotako izango da, eta hori 2025. urterako Lazkaoko Udalaren Aurrekontu Orokorren honako partidatik egingo da:

*1.471.03.433.01 zbk.dun partida, «Merkataritza irekiera, obrak» .*

##### *3. artikulua. Ezargarri den araudia.*

Diru laguntzen 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa; Diru laguntzen Araudi Orokorra, 887/2006 Errege Dekretuak onartua, uztailaren 21ekoa; Lazkaoko Udalak diru laguntzak emateko ordenantza orokor arautzailea, udal osoko bilkurak 2017ko otsailaren 28an onar-

tutakoa; eta Lazkaon merkataritza eta ostalaritza sustatzeko laguntzak emateari buruzko berriazko oinarriak, Tokiko Gobernu Batzordeak 2024ko martxoaren 19an onartutakoak.

#### *4. artikulua. Diru laguntzaren zenbatekoa eta ordainketa.*

Laguntza zenbatekoak ondorengoak izango dira:

- Irekitze berria izateagatik zenbateko finkoa: 1.500 euro.
- Lokalak egokitzeagatik zenbateko aldakorra, justifikatutako gastuen % 20, betiere 1.500 euroko guztirako mugarekin. Gastu hauen justifikaziorako dagozkion fakturak aurkeztu beharko dira eta ordainduta daudela egiaztatatu.
- Gastua euskaraz errotulatzera bideratuta badago edota jada dagoen errotulazioaren euskaratzera, lan honi zehazki dagokion gastuaren laguntza % 80koa izango da, betiere 500 euroko guztirako mugareki. Gastu hauen justifikaziorako ere dagozkion fakturak aurkeztu beharko dira eta ordainduta daudela egiaztatatu.
- "Ticketbai" fakturazio sisteman euskarazko softwarea jartzeagatik zenbateko finkoa: 250,00 euro.

Ordainketa:

Diru laguntzaren % 100eko kopurua diru laguntza ematea onartzen denean ordainduko da.

#### *5. artikulua. Aurkeztu beharreko agiriak eta eskaerak aukezteko epea.*

##### *5.1. Dokumentazioa:*

- a) Diru laguntza-eskabide normalizatua, beteta eta sinatuta.
- b) Identifikazio Fiskaleko kodearen (IFK) edota NAN dokumentuaren fotokopia.
- c) Eskatzaileak zabalduetako kontu korrante baten jabe dela erakusten duen agiria.
- d) Dirulaguntza eskatzen duena elkarte bada, erakundearen: kideak, helburuak, egiten dituen jarduerak, etab.
- e) Egindako gastua justifikatzen duen faktura orijinalak, ordainduta daudela egiaztatuta.
- f) Gizarte Segurantzarekin eta Gipuzkoako Foru Ogasunarekin egunean dagoenaren ziurtagiriak.
- g) Beste sail, instituzio, erakunde eta abarri egindako diru laguntza eskaeran nahiz lortutako diru laguntzen berri ematen duen zinpeko aitortpena.

##### *5.2. Eskariak aurkezteko epea:*

2025ko abenduaren 31n amaituko da.”

#### IX.- GALDERA ETA ERREGUAK.-

Ormazabal zinegotziak (EH Bildu) galdetu du ea Landarlanek bidalitako dokumentuaren inguruan zerbait ba ote dakiten.

Altuna zinegotziak (EAJ-PNV) erantzun dio berak lursailaren jabearekin hitz egin duela, gaixo dagoen pinudi bat dela eta beste zuhaizti bat landatzeko asmoa duela. Altunak ez duela ikusten Udalaren eskumena denik, Foru Aldundiarena baizik.

#### X.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jo du, arratsaldeko bostak eta berrogei direnean eta nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dut.